



XABI ALONSO ▶ LIVERPOOLEKO FUTBOLARIA


«Edozein jokalarirentzat hau da partida garrantzitsuena»

FINALA ▶ Txapelduen
Ligako finala jokatuko du
gaur Liverpoolekin
Istanbulen Milanen aurka

POZIK ▶ Tolosarra pozik
dago abuztutik hona
Ingalaterran egindako
lanarekin ▶ 2-3



Xabi Alonso Liverpoolen, The Beatles-en museoaren aurrean, aingura baten gainean. JON ORDOÑEZ/BERRIA



IÑIGO TERRADILLOS


‘Boli’, McKinley mendiko gailurra zapaltzera

TOLOSALDEA ▶ Aizpuru ibartarra, Joubert
alegiarra, Navas gazteluarra eta Mendez
tolosarra ere berarekin doaz Alaskara ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Isunak euskal presoeri «elkartasuna adierazteagatik»

N-1 errepidean eginiko protestagatik
1.300 euroko isuna jarri dizkiete ▶ 5



IMANOL GARCIA

HERRI BATZUETAN BANATU GABE ATZO

Atzo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA banatu gabe gelditu zen Anoetan, Iruran eta Villabonako Larrea eta Etxe ondo auzoetan, banatzaileari aleak lapurtu egin zizkioteko. Iritsi ez zitzaizkion barkamenak eskatzen dizkiegu.

XABI ALONSO ▶ LIVERPOOL-eko ERDILARIA

«Edozein jokalarirentzat hau da partida garrantzitsuen»

Txapeldunen Ligako finala jokatu du gaur Xabi Alonsok, Liverpoolekin, Istanbulen. Abuztuan joan zen Ingalaterrara, eta partida hori jokatu aurrean, pozik dago hilabete hauetan lortu duenarekin

JON ORDOÑEZ / BERRIA

Lainotuta dago zerua Liverpoolen, eta Mersey ibaiak kolore politak ditu argazkiak ateratzeko. Marea behera dago, eta ura zeruarekin nahasten da. Gustukoa du Xabi Alonsok itsasotik gertu bizitzea. Asteazkena da. Galdera eta erantzunen artean, Liverpoolgo hotel batean, hiru bat pertsona gerturatu zaizkio eskua eman eta asteazkeneko [gaurko] finalerako zortea opatzera. Gizon batek Fred izeneko arrearentzat Xabi Alonso futbolari tolosarren sinadura eramanez. Edozaineri galdetuta ere, guztiek dakite nor den Xabi Alonso. *Final* ingelesezko hitza normalean baino gehiago entzuten da.

Aurreko asteburuan amaitu zen Ingalaterrako Liga, eta ez zarete datorren denboraldian Txapeldunen Liga jokatzeko sailkatu.

Denboraldiko gure helburua nagusia zen. Baina ez gara erregularrak izan; etxetik kanpo partida asko galdu ditugu.

Ingalaterrako Federazioa bosgarren sailkatu denarentzat gonbita eskatzen ari da. Taldean zer iritziz duzue?

Gu zain gaude. Gure lana egin behar dugu, eta badakigu Txapeldunen Liga irabazita aukera gehiago izango ditugula.

Finalerako zein aurkari nahiago zenuen, PSV Eindhoven edo Milan?

Ez zitzaidan axola bietako zein sailkatuko zen. PSVk erritmo azkarrak eta indar handiak du, baina Milan talde handia da, esperientzia handia du, eta jokalaririk erabakigarriak. Guretzat oso zaila da irabaztea, baina konfiantza dugu eta gure aukerak ditugu.

Bereziki prestatzen ari al zarete?

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Zer iruditzen zaizu bikote homosexualen ezkontzeko eta adoptatzeko eskubidea izatea?
Inkesta. Zer iruditzen zaizu lantokietan erretzea debekatzea?



JON ORDOÑEZ - BERRIA

Bai. Milanek nola jokatzen duen badakigu, bideoak ikusi ditugu eta haien hutsune eta ezaugarriak zeintzuk diren badakigu.

Babesik ez zaizue faltako Istanbulen.

Ez, baina pena da futbol zelaietan atletismo pistak egotea. Gainera, 20.000 sarrera baino ez dizkigute bidali. Txapeldunen Ligako final baterako beste estadio itxiago batean jokatzeari nahiko gogoz, baina ziur naiz gure zaleek gogoz animatuko dutela.

Zure kirol bizitzako partida garrantzitsuenak al da?

Bai, horrelako aukera gutxi izaten dira bizitzan. Maldinik zazpi final jokatu ditut, baina beste guztiontzat horrelako partida bat beti da garrantzitsua. Irabaziz gero, profesionalki nire lehen titulua izango litzateke.

Futbol zelaietan, zein izan da zuretzat denboraldiko unerik onena?

Etxean Arsenalen 2-1 irabazi genueneko, Olympiakosen aurka 0-1 galtzen hasi eta 3-1 irabazi genueneko...

Orain dela urtebete Realean zeunden. Atzera begiratzeko

duzu bizitza nola aldatu zaituzteko?

Garbi dago orain dela urtebete ez nuela pentsatzen hemen egongo nintzela. Realean hiru urte eta erdi oso politak bizi izan nituen, baina hori atzean geratu da orain. Faltan ezer ere ez botatzen saiatzen naiz.

'Periko' aitak eta Mikel anaiak zer esaten dizute finalaren atarian?

Anaiak, finala jokatzeko aukera izateagatik, egundoko aurpegia dudala esaten dit [barrez]. Aitak aukera aprobetxatzeko eta gozatzeko esaten dit.

Aitak ere antzeko esperientzia bizi izan zuen Bartzelonara joan zenean. Zer esan zizun joan aurretik?

Serio aritzeko. Baina berak ezagutzen nau, eta bazekien ez nuela arazo larrik izango.

Nolakoa izan da zuretzat sasoa?

Lehen urtea izateko, nahiko ona. Dezente jokatu dut, nahiz eta tartean min hartu nuen. Jendeak oso ondo hartu nau, gainera.

Bai Euskal Herrian, baita Ingalaterran ere, hitz politikak eskaintzen dizkizute. Zuk, ordea, inoiz ez diezu laudorioei

garrantzia handirik eman, itxuraz.

Entzuten ditut bai, baina momentu onetan eta txarretan iritziekiko distantzia bat gorde beharra dago, beti. Bakoitzak badaki zer egiten duen ondo eta zer hobetu behar duen.

Laudorioek nekatu egin zaituzte?

Batzuetan hainbesterako ote den pentsatzen dut. Saiatzen naiz naizena baino gehiago naizenik ez sinesten.

Pertsona barnerakoia dirudizu, lanean buru-belarri sartuta egoten dena. Zer moduz egokitu zara Liverpool hirira?

Ondo. Gehiegi ez aldatzen saiatu naiz, eta lehen egiten nituen gauzak egiten. Ni naizen bezalakoa naiz, leku batean eta bestean. Aldi berean, hemengo ohituretara egokitzen eta hemen lan egiteko modua ezagutzen saiatu naiz.

Esandakoa nire irudipena da. Ez dakit zuk zeure buruaz gauza bera pentsatzen duzun.

Ba... lasaia izaten saiatzen naiz. Jendeak gelditzen al zaitu kallean?

Ezagun egin naizen heinean, bai. Baina niretzat ez da hori

sekula arazo bat izan. Normalean animoak emateko jotzen dute zaleek jokariengana.

Finalerako ordu batzuk gertatzen dira. Liverpoolen giroa berotu dela nabaritu al duzu?

Joan den astetik, bai. Jendeak buruan zuen maiatzaren 25a.

Zer dago Anfield futbol zelaiaren giroaren atzean?

1960ko hamarkadan hiriak asko sufritu zuen, baina futbol talde zoragarri bat zuen, txapelduna, eta horrek eman zion jendeari poza. Harrezkero klub eta zaleen arteko harremana oso ona da.

Carragher zure taldekideak esan zuen Liverpool langileen taldea zela, finalerako sailkatu ondoren.

Bai. Diruarekin gauza asko erosi daitezkeela esan zuen, baina Liverpooleko zaleak, ez.

Maiatzaren 29an Heysselgo tragediaren hogeitau urte bete-ko dira, baina Juventus aurkako kanporaketak urteurren aurreratu zuen. Nabaritu al zenuten taldean urteurren hori?

Bai. Anfielden gorde genuen minutu bateko isilunea hunkigarria izan zen.

'You'll never walk alone' kantua, The Kop harmaila, Anfield futbol zelaiak... Mitoz beteriko taldea da Liverpool. Ba al da egia ez den baten bat?

Denak dira egia, eta gehiago ere badaude. Etxeko taldearen aldagela txikiagoa da jokalariek elkarrengandik gertuago egon gaitenean, gure aldagelako atea txikiagoa da ateratzen garenean handiagoak garaile sinetsi dezagun.

Gehiago?

Jokalaririk bakoitzak bere botak garbitu behar ditu.

Iritsi zinenen baino gehiago identifikatzen al zara orain klubarekin?

Zalantzarik gabe, bai. Bane-kin nora nentorren, baina ez nuen hau ezagutzen. Orain nire barruan gehiago sentitzen dut.

Anfieldeko giroak zertan laguntzen du jokalaria?

Motibatuta egiten du, eta gauzak ondo egiteko grina eman. Gauza bat ondo eginez gero, zaleek asko eskertzen dute. Konfiantza asko ematen du jendeak.

Eta zerbait gaizki egiten duzue?

FINALA, AURREAN

«Guretzat oso zaila izango da gaur irabaztea, baina konfiantzaz gaude eta gure aukerak ditugu»

BENITEZEN ESKEMA

«Liverpoolen jokalariek guztien erdian nago, eta oreka ematen eta jokoa errazten saiatzen naiz»

ANFIELD, MITIKOA

«Gure aldagelako atea txikiagoa da, zelaira ateratzen garenean handiagoak sentitu gaitezten»

Ondo egiten saiatzen zaren bitartean ez dute txisturik egiten. Saiatzen ez bazara edo korrika egiten ez baduzu, orduan bai. Zelaira ateratzeko pasagunean zer sentiitzen duzu? Abestiak entzuten dira, *This is Anfield* (Hau Anfield da), koardroaren azpitik pasatzen gara... oso polita da une hori.

Jokalariek bakoitzak zuen abestiak dituzue. Zureak ba al dakizkizu?

Letra bat baino gehiago dago; gehien entzuten dudana leloa *Xabi Alonso, Xabi Alonso* da.

Mito guztiak utzi, eta zer nabarmenduko zenuke zuk Liverpooletik?

Oso klub profesionala da. Usadioaren atzean antolakuntza bikaina dago.

Tradizio handiko taldea da, baina, aldi berean, hogei atzerritar ditu orain Liverpoollek. Ez al da kontraesana?

Jendeak hemen ez dio begiratzeko jokalariei jatorriari. Normala denez, Liverpoolen bertan jaiotakoek, Gerrard-ek eta Carragher-ek, bultzada berezia jasotzen dute. Baina, gainerakoan, elastiko gorria jantzi orduko babesten gaituzte zaleek.

Rafa Benitezen miraria asko aipatzen da. Zer izan da garrantzitsuagoa, lehendik zegoena edo denboraldi honetan etorri dena?

Benitez maganerra da hemen, eta bera da jaun eta jabe. Hala ere, ez dago hori balantza batean jartzetik. Zegoena eta etorri dena ondo uztartu dugu.

Arduraren beldur izan zara?

Sekula ez. Gauza berrietara zabalik etorri nintzen, baikor; ondo jokatzeke itxaropenarekin.

Realean harrobiko jokalaria zinen. Hemen, atzerritarra. Zein da ezberdintasuna?

Batez ere eguneroko bizimodu nabaritzen dut. Han gauza bakoitza non dagoen bada-kizu, eta behar duzunean badakizu nora jo. Hemen, hiri eta klub ezberdin batean, hasieran noraezean ibili nintzen.

Eta taldean?

Atzerritar asko gaude, eta etxe-koen eta atzerritarren artean ez dago ia ezberdintasunik.

Joan Mari Irigoienek 'Odolean neraman' liburua idatzi zuen, Realetik Bartzelonara joan eta arrakastak irentsi zuen jokalaritaren istorioa. Ez dirudi zure kasua.

Espero dezagun ezetz.

Zer daramazu zuk odolean?

Nire jaiolekua. Basque Country-tik natorrela esaten dut. Hemen badakite ezberdinak gara, gure kultura daukagula.

Liverpool ere hiri berezia da. Irlandar asko etorri ziren lanera, eskola eta eliza katoliko asko daude, eta kluba lehen katolikotzat hartzen zen.

Batzuek diote euskaldunak Espainian garena direla Liverpoollekoak Ingalaterran. Klubak Irlandarekin harreman handia dauka, baita Celtic Glasgow Eskoziako taldearekin ere (Eskoziako katolikoek kluba).

Futbolak inor gutxiri eskaintzen dion aukera eman dizu. Zer da zuretzat?

Nire bizitzan oso garrantzitsua da, leku eta jende asko ezagutu ditut. Baina futbolaz aparte, gauza gehiago ere baditut: neska-laguna, familia, lagunak...

Eta profesionala izatea, zer da?

Futboleko garrantzitsuen maila ona ematea dela jakitea, eta beste guztia, garrantzitsua izanda ere, alde batean mantentzea. Real B-n nengoenen jokatu eta ikasi egiten nuen. Behin lehen taldera igo nintzean, ordea, futbolaria nintzen eta hortaz aparte ikasi egiten nuen. Real B-n baimena eskatzen nuen azterketa batera joateko. Lehen taldean burutik ere ez zitzaidan pasatzen; irakasle-ari azterketa orduz aldatzeko eskatzen nion. Lehentasun horiek ezarri eta gorpuzta zaindu behar da.

Zer harreman duzu Pako Aiestaran eta Jose Manuel Otxotorenarekin?

Oso ona. Euren lana egiteko oso ondo prestatuta daude, eta jendeak balio handia ematen dio horri hemen. Bikain ari dira.

Rafa Benitezi buruz zer iritzi duzu?

Bera da taldeko burua, eta xehetasun guztiak zaintzen ditu. Bere ibilbideak dena dio.

Bere taldean zer funtzio duzula esango zenuke?

Postu guztien artean nago, atzelarien aurrean, aurrelarien

atzean, hegaleko jokalarien artean... oreka pixka bat ematen saiatzen naiz, eta besteen jokoa errazten.

Ronaldinhoren ezaugarri nagusia bere hanketako mugimendua den bezala, zurea pase sakona da?

Hori da nire ezaugarri nagusia, eta ahal denean, egiten saiatzen naiz. Gustura sentitzen naiz zelai erdian, eta jendeak asko eskertzen ditu paseak.

Zure jokoa geometriaren neurria duela diote. Ba... [barrez].

Errazago egiten al duzu zure jokoa Ingalaterrako Ligan?

Uff... Hemen erritmo eta presio gehiago dago, baina Espainiako Ligan baloiarekin kalitate gehiago dago. Agian zailagoa da hemen nire jokoa egitea, kontaktu fisiko gehiago dago.

Bill Shankly-k esaten zuen baloia hartu orduko lehenbailehen gertuen zegoen elastiko gorridun jokalaritari pasatu behar zitzaioela.

Jokoa oso ezberdina da. Espainiakoan, baloia duzunean pentsatzeko segundo bat uzten dituzte; hemen, segundo erdia.

Aldageletan zein jokalarik harritu zaitu gehien?

Hyypia oso jatorra da, Carragher ere bai... Zelaian Gerrard-ek; ezberdina da eta futbole- rako ezaugarri oso onak ditu.

Ingalaterrako futbola mitoz josita dago. Lampard Chelsea-koak sarrera gogor bat egin zizun, zuk zorte txarra izan zela esan zenuen; Lampardek zure kiroltasuna azpimarratu zuen, eta elkar ikusi zenuten hurrengo partidaren elkar agurtu zenuten. Zergatik gertatzen da hori Ingalaterran eta ez beste liga batzuetan?

Gogor jokatzen da hemen, baina kiroltasun handia dago. Esaterako, Espainiako Ligan jokalaritaren lurrean dagoelako talde batek baloia kanpora nahita botatzen duenean, itzultzerakoan ahalik eta gehien botatzen zaio atzera, presioa egiteko, kanpora. Hemen behin ikusi dut talde bat hori egiten, eta zaleek txistu egin zioten. Ingalaterran baloia hanketara bueltatzen zaio aurkariari, lasai jokatzen. Gainera, jokalaritaren bere burua lurrera botatzea ez zaie batera gustatzen.

Non egokitu zara errazago, klubean edo hirian?

Ez batean ez bestean ez dut arazorik izan.

Autobus gidari batek, jokalaritara ondo hitz egiten duzula nabarmendu dit.

[Barrez] Donostiatik etxeko lan-kan eginda etorri nintzen, banekien zer bait etorri aurretik ere. Lehen eguneko agerraldia osorik ingelesez egin nuen, eta hobetzen saiatzen naiz.

TOLOSA KUP ▶



Joan den urteko festako herri bazkaria, Plaza Berrian. GARAZI AZKUE

Herri osora zabalduko da jai giroa

Tolosa Kup festa larunbatean izango da; bazkarirako izen-ematea, amaitzear

LEIRE MONTES

Uzturpe kiroldegiak elkartzen ditu astebururo Tolosaldeko gazteak, futbolaren aitzakian, Tolosa Kup txapelketan. Larunbatean, baina, Santa Luzia auzotik herri osora zabalduko da jai giroa; izan ere, egun horretan bertan izango da Tolosa Kup festa.

Era guztietako ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek. Urtero legez, Tolosa eta Ibarra taldeek elkarren aurka Berazubini jokatu duen partidak zabalduko du egitaraua: 11:30-etik aurrera, beraz, ez da giro-rik faltako herrian.

15:00ak aldera hasiko da bazkaria, Plaza Berrian. Antolatzaileek mahaiak, sagardoa, basoak eta kubiertoak jarriko dituzte. Jatekoa, berriz, «bakoi-tzak eraman behar» duela azpimarratu dute. Dagoeneko eman diete horren berri txapelketan parte hartzen ari diren taldeei, mezu elektronikoko bidez. Baina «bazkaria eta festa eguna denontzat zabalik» dela gogoratu dute, eta horretatik «gazte guztiak izena ematera animatu» dituzte: «Festa ondo ateratzeko denon parte-hartzea ezinbestekoa da».

Ostirala arte dago izena emateko aukera, bai tolosakup@hotmail.com helbide elektronikoa, bai 617 78 20 00 telefono zenbakian (18:00etatik aurrera). «Kopuru zehatza jakiteko lehenbailehen izena ematea» eskatu dute. Era berean, ma-

EGITARAUA ▶

- 11:30.** Tolosa eta Ibarra taldeen arteko partida, Berazubini.
- 15:00.** Herri bazkaria, Plaza Berrian.
- Ondoren.** Oria txarangak alaituta, herri poteoa lagundu duten tabernetatik.
- 22:00.** Mulambo perkusio taldearen emanaldia, kalez kale.
- 00:00.** DJ festa, Abastosen. Gazte Topagunean DJ ikastaroa eskaini zutenek jardungo dute.

haiak jartzeko laguntza behar dute: prest dagoena 13:30-14:00ak aldera Plaza Berrian agertu besterik ez du.

Gaueko ordu txikiak arte, musikak, festa giroak, eta ondo pasatzeko gogoak hartuko dituzte herriko kaleak. «Gazte jendea herrian bertan ondo pasatzea eta denon arteko elkar ezagutza bultzatzea» dute helburu txapelketak eta festak. «Futbola aitzakia da, azken finean».

Kamisetak salgai

Txapelketako kamisetak prest daude jada, eta Tolosako taldeak partidarako jantziko ditu. Gainera, salgai jarriko dituzte, 6 eurotan. Berazubini, partidak irauten duen bitartean, eta Plaza Berrian, bazkaltzeko garaian, erosi ahal izango dira.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Eskualdeko artisten lanak ikusgai daude herriko Kultur Etxean

Hilaren 31 arte izango da zabalik erakusketa Atxulondon; eskualdeko hamabi artisten lanak ikusi ahalko dira

IMANOL GARCIA

Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan, bigarren arte erakusketa zabaldu dute Atxulondon kultur etxean. Lehenengo Nafarroa Oinezen erakusketa bazen, artista ezagunak utzitako obrek in osatua, oraingoan eskualdeko artisten lanak ikusi ahalko dira. «Maiatza Saltsanen helburua kultura guztiengana heleraztea da eta horregatik ikusi genuen egozia eskualdeko artistek beraien lanak erakustea», azaldu dio Ainhoa Larrea kultur tekni-



Inaugurazio ekitaldia egin zen astelehen arratsaldean. I. GARCIA

ARTISTAK ▶

Erakusketan parte hartu duten Tolosaldeko eta inguruko artistak.

- ▶ Patxi Otegi (Zizurkil).
- ▶ Inmaculada Alkorta (Zizurkil).
- ▶ Ramon Balerdi (Villabona).
- ▶ Amalia Cabeza (Anoeta).
- ▶ Marivi Iparragirre (Anoeta).
- ▶ Alejandro González (Anoeta).
- ▶ Inma Lopetegui (Irura).
- ▶ Braulio Goienetxe (Zarautz).
- ▶ Javier Aparicio (Tolosa).
- ▶ Luis M. Nuñez (Anoeta).
- ▶ Agurtzane Nuñez (Anoeta).
- ▶ Amaia Nuñez (Anoeta).

kariak HIZARI. Horrela deialdia egin zuten eta guztira hamabi artisten obrak daude ikusgai.

Erakusketa maiatzaren 31 arte izango da zabalik. Ordutegia 12:00etatik 13:00etara izango da goizetan eta 16:00etatik 20:00etara arratsaldetan, astelehenetik ostiralera bitartean.

ANOETA ▶

Txupinazoak botako dira gaur Korpus bezperan

I. GARCIA

Gaur, Korpus bezpera izanik txupinazoak botako dira jaien hasiera ofiziala irudikatuz. Udalak antolatutako egitarauan, 18:45ean, Loatzo musika eskolako txalapartariak Kukuaren etorrera iragarriko dute plazan. Ondoren, 19:00etan, txupinazoak, Kukuaren jaitziera eta umeen danborrada. Ondoren sardina jatea, sari banaketa eta Loatzo musika eskolako trikitilarien kalejira. 23:00etan, Kiñu taldea.

Festa alternatiboetan, 18:30ean egingo da txupinazo jaurtiketa. 19:00etan, kontzentrazioa egingo da PNV/EA: Bi urte anoetarron eskubideak urratzen. Aski da lemapean. Ondoren trikitipotea. 23:00etan, musika emanaldia, herriko trikitilariak eta B.A.G. dj-a.

VILLABONA ▶ KULTURA

Eskolarteko ipuin eta bertso onenak saritu dituzte

Amaia Agirre eta Iñaki Zalakain animatzaile lanetan aritu ziren Gurean egindako ekitaldian

I. GARCIA

Giro ederra izen zen atzokoan Gurea antzokian. Villabonako eskolarteko ipuin eta bertso sari banaketa izan zen. LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek txanda izan zen lehenengo eta saridunen izenak entzun bezain laster oihuka hasten ziren antzokia betetzen zutenek. Lehen hezuntzakoen sari banaketak amaitu ondoren, DBHkoen txanda izan zen. Hauek ere txalotu zituzten saridunak, baina gaztetxoeren iskanbila handirik sortu gabe. Bertsoen arloan, hirugarren postuan lau sari banatzea erabaki zuen epaimahaiak, izandako maila parekatuagatik.

Sari banaketa modu berezian egin ohi da. Amaia Agirre bertsolari eta bertos eskolako irakslak eta Iñaki Zalakain Loatzo musika eskolako irakaslea izan ziren animatzaileak. Agirrek bertsoen arloan ematen zituen saridunen izenak, bertso bana eskainiz. Maila bakoitzeko irabazleek beren bertsoak abestu zituzten. Bestalde, Zalakainek, gitarra eskuan zuela, abestuz jakinarazten zituen ipuinen arloko saridunak.



Lehen Hezuntzan sariak lortu zituzten neska-mutilak. I. GARCIA



DBH mailan sariak lortu zituztenak. I. GARCIA

SARITUAK ▶

LH3 / LH4

Bertsoa.

1. Naiara Larrañaga.
2. Iker Sarasola.
3. Iñigo Otaegi.

Ipuina.

1. Ainhoa Diaz.
2. Aitor Gisasola.
3. Jone Mendiluze.

LH5 / LH6

Bertsoa.

1. Irati Olazabal.
2. Kepa Nazabal.
3. Beñat Iraola.

Ipuina.

1. Raquel Mendez.
2. Andoni Mosqueira.
3. Jone Iriarte.

DBH

Bertsoa.

1. Julen Urruzola.
2. Aritz Garin.
3. Ander Altuna.
3. Jaione Sarasua.
3. Oihana Iguaran.
3. Joseba Iturbe.

Ipuina.

1. Mirari Alkorta.
2. Jon Igaitei.
3. Imanol Urkola.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KIROLA

Alaskako McKinley mendiaren gailurra zapaltzea helburu

'Boli' ibartarrarekin batera eskualdeko Unai Aizpuru ibartarra, Manu Joubert alegiarra, Anjel Navas gazteluarra eta Joana Mendez tolosarra abiatu ziren atzo



Jon Goikoetxea Boli eta Unai Aizpuru ibartarrak herenegun Ibarrako plazan. I.TERRADILLOS

INIGO TERRADILLOS

Atzo abiatu zen Alaska aldera Jon Goikoetxea *Boli* ibartarra, McKinley mendia igotzeko helburuarekin. Zazpi kontinente-ko gailur altuenak 2 urte eta erdiaren buruan igotzeko proiektua du Ibarrako Josu Feijoo gasteiztarrarekin, eta Everestara igo ondoren bigarren mendia izango da hau.

Abentura honetan parte hartzeko mendizale gehiago animatu dira; Manu Joubert alegiarra, Anjel Navas gazteluarra, Joana Mendez tolosarra, Unai Aizpuru ibartarra, Juanma Sarasola ordiziarra, Jose Jabier Sarasola ordiziarra, Carlos gasteiztarra eta Borja Pascual madrildarra, hain zuzen.

24 orduko bidaia egin eta Alaskan bertan behar dute izan neotan mendizaleak. Lehenengo lau egunak prestaketa lanak egiteko erabiliko dituzte. Alaskako hiriburutik, hau da, Anchorage-tik abiatu eta Talkeetna-ra iritsiko dira. Handik hegazkin bidez Denaliko parke nazionalera helduko dira. 4 edo 5 egun trineo eta eskiekin egingo dute kanpo baseraino iritsi arte, eta handik hasiko da benetakoa abentura, 6.170 metroko gailurra igotzea, alegia.

Proiektuan Goikoetxea eta Feijoo aritzen badira ere, espedizio honetan parte hartzeko proposatu zieten hainbat mendizaleri. Horren adibide da Ibarrrako Unai Aizpuru; «*Bolik*

proposatu zidan eta animatu egin nintzen, talde polita osatuta goaz», azaldu du mendizaleak. Gazte gazetetik izan du mendirako zaletasuna ibartarrak, «Hego Amerikan, Peru izan naiz eta 6.000ko pare bat mendi igoak ditut, eta Alpeetan Mont Blanc ere igo nuen, hala ere, igotzera goazena oso desberdina da, gogorragoa da», dio Aizpuruk. Izan ere, mendiak dituen ezaugarriengatik ez baino bertara igotzeko jasan behar diren tenperatura baxuak —45 gradu zero azpira iritsi daitezke— eta haize gogorak zailtzen dute espedizioa. Alaskan horrelako espedizioak egiteko urteko sasoi onena dela azaltzen du *Bolik*, 24 orduak egunez baitaude,

eta bertan izan direnek orain joatea gomendatzen dute.

Trineo banatan 60 bat kilo emango dituzte mendizale bakoitzarentzat. Arropa, janaria, sukaldako tresneria, dendak... osatuko dute ekipaia. Beharrezko den guztia eman behar da, ahalik eta pisu gutxienera. Alaska heldu direnerako janaria eta materialaren zati handi bat bertan topatuko

dute, bidali egin baitzituzten egun batzuk lehenago.

Egin beharreko lanari dago-kionez, Denaliko parke nazionaletik, hau da 2.000 metro ingurutik, 4.200 metrotan kokatzen den kanpo baserarte *Bolik*, Aizpuruk, Mendezek eta Pascualek eskiekin egingo dute bidea, eta raketekin berriz gainerakoak. Puntu horretan eskiak utzi beharko dituzte eta aldapa igotzen hasiko dira McKinley gailurrera iritsi arte.

Gogotsu eta ederki prestatu-rik irten dira espedizioari ekitako. Bertan izan diren jendeak zailtasunen berri eman die, eta Alaskari buruzko xehetasun guztiak ikasi dituzte. Hiru aste inguru iraungo dituela espedizioak azaldu dute, beraz, abentura amaitu eta etxera ekainaren 15 edo 19aren bueltan etortzea espero dute.

BERROBI ▶ KULTURA



Gazteen Literatur Lehiaketako sariak banatu dituzte

I.Terradillos ▶ Kultur Astearen baitan egin zuten Literatur Lehiaketako sari banaketa. 16 parte-hartzaile izan dira denera, eta irabazleak hauek izan dira: (6-8 urte) Garazi Goenagaren *Amaia eta Naroan zoritxarrak*, (9-11) Maddi Dorronsororen *Elenaren fantasiako munduak*, Izar Agirresaroberen *Ipotxen lurraldea* eta aipamena Arantzazu Rodasen *Txakurra eta katua*, eta (12-14) Eztizen Agirresaroberen *Lepoko salatario*. Parte-hartzaile guztiek izan zuten saria, eta irabazleek, berriz sari potoloa. HITZA

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20480 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1.050 m² dituen bi solairuko pabilioia alokairuan. 250 m²-ko solairu arte. Ezaugarri eta berrikuntza guztiekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia

alokairuan eskaintzen da. Erabat hornitua.

Berastegi. 100 m² dituen bi solairuko borda. Berritzeko. 75 m²-ko lursailarekin. 35 eta 50 urteko Laritz pinuekin.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldia, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Gros. 70 m²-ko duplex zoragarria salgai Sagues zonaldean. Berritua.

Errioxa. Hormilla. Najeratik 3

kilometrotara. 11 etxe atxiki lorategi eta igerilekuarekin urbanizazioan.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai.

Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko.

Garajea aukeran.

Lasarte. 65 m²-ko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Eguzkitsua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai. 350m²tik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Duplex-a estreinatzeko.

Tolosa. Iurren 98m² dituen etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eguzkitsua, igogailu eta trastelekuarekin. Garaje marra.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratxioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin.

Berritzeko premia.

Tolosa. Letbuga kalean 105 m²-ko etxebizitza salgai. Berritzeko.

Urretxu. 780m² dituen pabilioia salgai. 300 m²-ko solairu tartearrekin. Erabat hornitua. Erakusketa zabalda.

LEITZA ▶ KULTURA

Elosegiren Zelaia saria liburua kalean

'Hartzak Piriniotan XXI. mendean'-ek 2004ean eskuratua du Zelaia saria

JAIONE ASTIBIA

Migel Mari Elosegik iazko azaroan irabazi zuen Juan Zelaia saria, bere *Hartzak Piriniotan XXI. mendean* saiakera lanarekin eta oraintxe argitaratu berri du Pamiela argitaletxeak, li-

burua eta Iruñean egin aurkezpenera, beste saridunaren lanarekin batera.

«Posible ote da garapena eta kotserbazioa uztartzea?» galderarekin, eta Piriniotako hartz arrearren inguruan beti, ikasketaz biologo eta lanbidez baso-



Migel Mari Elosegi. J. ASTIBIA

zain den leitzarrak, bere ikuspuntua azaldu du lan honetan: Piriniotako hartzairen ondoan bizi direnen zuzeneko testigantzen lekuko eta zer esanik ez, biologo modura hartzen gaiari egindako jarraipen eta azterketen jabe, datutan oinarrituz,

ingurumena osotasunean kotserebatuz, hartzairen kontserbazioak eragina lukeen eskuarabiarako garapen modu bideragarri baten aurkezpena egiten du.

Horretarako, hartzen gaur egungo egoeraren kausen azterketa egiten du lehendabizi, eta hauek babesteko oraindairno hartutako neurrien nondik norakoak azaltzen ditu. Baina, saiakera lan honen muina, geroan egin beharreko pausoak liratekeenetan dago eta berak, bere planteamendu propioa egiten du, arlo horretan. Saria jaso berri zuenean, HITZARI azaldu zionez, hartzairen bizi-erapena, bertakoen esku omen dago: «Bertako jendeak nahi behar du», eta hori, gizartearen «benetako konpromisoarekin» lortuko litzatekeela

baiezatu zuen, «emandako hitzak bete». Hartza «eremu hartarako bidezko iturri» modura hartu beharko omen litzateke, «ez garapenaren oztopo gisa», zioenez. Hartzak bizirautea lortuz gero, bere ustetan, «guztontzat gauzak ongi egin diren seinale» zatekeen.

Kontuak kontu, ideia horren azalpena hortxe dator aipatutako lan honetan: Iratiko basoaren beraren, alegia, Euskal Herrian hartzairen aldzikako bizileku datekeen ingurunearen irudia azalean duela, 127 orrialdetako entseio lana aukeratu eta eskura dago, erraz irakurri eta guztiok ulertzeko moduan azaldu eta idatzia.

Bidenabarrean esanda, Leitzako liburudendetan ere salgai dago jada liburua, gainera, hara.

LEITZA ▶ URREZKO HARRI JASOTZAILEA

Mikel Saralegi eta 'Zelailuze', Urrezko Harri-jasotzaileen finalera iritsi dira

Aurkariak zein izanen dituzten hurrengo igandean jakinen dute

J. ASTIBIA

Mieltxo Saralegik eta *Zelailuzek* irabazi zuten lehengo igandean Azkoitian jokatu zen Urrezko Harri-jasotzaileen Lehiaketako finalerdia eta, beraz, finalerako txartela eskuratu zuten.

Saralegik eta Zelailuzek, *Goenatxo* eta Barinaga izan zituzten aurrez-aurre, eta lehia bizian aritu ziren laurak, egin beharreko laentan, bakoitzak zuten guztia emanaz. 100 kiloko zilindroarekin, Barinagak har-

tu zion aurre, Zelailuzeri, 29 altxaldi eginda, besteak baino bi gehiago. Pena zuen, 30.a egiteko denborarik ez zuelako izan; 200 kiloko errektangularrarekin, bederatzina jasoaldi egin da, Saralegi eta *Goenatxo* berdina gelditu ziren, eta baita markagailu orokorra ere. Gauzak horrela, txanda libreko saioa erabakiorra suertatu zen, eta hemen, Saralegi-Zelailuzek bikotea jabetu zen finalerako txartelaz, 100 kiloko bola, 37 aldiz goratuta, besteak baino 2 gehiago.

Finala, Azpeitin jokatu dute, hurrengo hilaren 11an. Ordura arte atsedean hartzeko bete izanen dute. Bitartean, finalerako beste bikotea zein izanen den erabakiko da, igandean honetan, hilak 29. Aian jokatu dute den beste finalerdietako saioan: Ostolaza-Izeta IV.a eta Irigoien-Izeta III.a lehiatuko dira, bi anai elkarren aurka ariko direnez, ikusmin berezian sortuko duen norgehiagokan. Irabazleek, Saralegi eta Zelailuzerekin jokatu beharko dute finala.

GIZARTEA ▶

Imersoko oporretarako, eskaerak egin behar dira

Gizarte Zerbitzuan, ekainaren 27rako

J. ASTIBIA

65 urte beteta izatea, pentsioduna edo bere bikotea edo bere seme-alaba (bete ere %45eko ezintasuna baino gehiago eta bere kabuz baliatzeke gauza izanik) izatea, edota aurre-jubilatuta egonik gutxienez 60 urte izatea, dira bete beharreko baldintzak, Imersoko oporretara joateko.

Aukeraz baliatu nahiz gero, hurrengo hilaren 27rako egin behar omen da eskaera, Oinarriko Gizarte Zerbitzuko bu-

legoetan, aurrez 948 510840 telefono zenbakian ordua hartuta, handik bertatik igorri dute oharrik dionez.

Egonaldiak «Espainia eta Baleare eta Kanariak irletan», ez ezik, Portugalen ere egin omen daitezke. Edo, bestela, «naturguneko turismoa» edota «kultur zirkuituak» egiteko aukera ere eskuragarri omen daude. Edozein moduz, lekuak, luzerak eta bakoitzaren balioaz informazioa, han bertan emanen omen diote bakoitzari.

hitza **txokoa** *lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratu dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 25a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. I. Kirol Astearen barruan, San Joan herri eskolako ikasleak herri kirolak egingo dituzte goiz guztian zehar: eta 20:30ean Kultur Etxean mahai-ingurua: *Kirola eta osasuna*. Partaideak: Iñaki Arratibel, Aitor Perez Arrieta, Jose Manuel Erasun eta Gari Uranga.

Amezketeta. Udalak jai batzordeari buruz gazteei egindako proposamenari baietz edo ezetza emateko, gazteen bilera udal ordezkariekin 20:30ean gela polibalentean.

Ibarr. *Ikaskideen arteko tratu txarrak: familiaren esku-hartzea* hitzaldia ikastoako areto nagusian 18:00etatik 20:00etara.

Lizartza. Hauteskunderen 2. urtemugan udalbatzarra 20:00etan eta ondoren kontzentrazioa udaltxearen aurrean: *Herriaren borondatea gauza guztien gainetik*.

Tolosa. Hauteskunderen 2. urtemugan Batasunaren kontzentrazioa udaltxearen aurrean 20:00etan:

Eskubide zibil eta politikoen alde. Apartheid ez.

Tolosa. Musikariaren barruan, Donostiako akordeoi orkestraren kontzertua Udala Musika Eskolan 19:30ean.

Tolosa. Natur jardunaldiak. Mahai-ingurua Kyotoko protokoloaz udaltxearen 20:00etan. Partaideak: Iñaki Ezkerra ingurumen sailburuordea, Maria del Mar Asuncion ADENAKOA eta Francisco Olarrega Iberdrolakoa. Aurkezlea: Sabino Ormazabal kazetaria.

Tolosa. Arsenalen XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa 1993-96 arteko neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak. Hilaren 14a bitarte.

Villabona. Gaztetxearen I. urtemuga: *En el nombre del hijo* filma Gaztetxearen 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza, Gimeno, A. Elbarren 52. 112
Tolosa, Santamaria, I. Nafarroa 2. 943 65 46 10.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Baserriak eta paisaiak aukeratu ditu Matxin Labaienek. J.SAIZAR



Abstraktoa eta kolore leunak aukeratu ditu Miren Gonzalezek. J.SAIZAR

Naturaren bi ikuspegi

TOLOSA ▶ Matxin Labaien eta Miren Gonzalezen marrazkiak ikusteko azken egunak dira; Aranburu Jauregian dute erakusketa



Natura hartu dute oinarri gisa bi artistek, bakoitzak gero estilora islatzeko. HITZA



ERREDAKZIOA

Azken egunetan da bi artista tolosar ezagunen erakusketa Aranburu Jauregian. Matxin Labaien eta

Miren Gonzalez Goikoetxearen marrazkiak daude ikusgai hango aretoetako paretetan.

Bi artista tolosar, bata esperimentzia luzekoa eta beste gaztea. Gonzalezen irailko era-

kusketa ikustera joandakoa ezagutu zuen Labaienek eta handik sortu zen elkarrekin erakusketa hau egiteko ideia.

Naturatik abiatzen dira bi artistak, bakoitzak bere modura

islatuz. Matxin Labaienaren estiloa ezaguna da inguruan: baserriak, paisaiak... modu figuratiboan. Makina bat erakusketa egin ditu jada eta ohikoa da Tolosaldeko herrietan margotzen ikustea.

Miren Gonzalezek berriz, ikuspegi abstraktotik islatu du natura. Irailean doktore tesiko lana erakutsi zuen Aranburun bertan eta orain paperearen gainean errotuladerez egindako marrazkiak jarri ditu. Argentinan eta Brasilgo egonaldian egindako marrazkiak dira. Fruitu, barazki, diseinu arkitektoniko eta urbanistikotatik abiatu da, «manipulatu, errepikatuz eta konbinatu, baina orden logikoa jarraituz». Abstraktoa eta matematika «nolabait» elkartzaren direla dio artista gazteak.

FITXA ▶

Gaia. *Marrazkiak* erakusketa.
Egunak. Larunbata arte.
Ordua. 17:30-20:30.
Tokia. Aranburu Jauregia.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iker Arbelegi Perez.
Zorionak gure polita aitabo, ama eta Ibonen partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulego - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!